



Gure fakultatean, ekainaren
2-an hasiko dira azterketak.



Gure fakultatean, ekainaren
2an hasiko dira azterketak.

Zifraz idatzitako zenbaki kardinalak deklinatzean, ez da marrarik jarri behar zenbakiaren eta deklinabide-markaren artean, ezta zuriunerik utzi ere:

- Ekainaren **15etik 25era** bitartean egongo dira Australian Miren eta Jone.
- *Ekainaren **15-etik 25-era** bitartean egongo dira Australian Miren eta Jone.
- *Ekainaren **15 etik 25 era** bitartean egongo dira Australian Miren eta Jone.

- Bi zifrako zein zenbaki biderkatu behar dugu **2ren** bikoitzaz, 3 lortzeko?
- Era berean, 15 urtetik gorako gipuzkoarretatik % **41,2k** etxean bertan du Interneterako sarbidea.
- Laburpenak zein komunikazioen testuak **3,5eko** disketean bidali behar dira.
- Azpimarratu behar da **10en** berreketa biderkatzen duen zenbakia zenbaki osoa dela, edo, bestela, **1etik 9ra arteko** zenbaki hamartarra.

Berdin jokatu behar da zenbakia ordinala denean:

- **5.etik 8.era** bitarteko artikuluek definitzen dituzte alor bakoitzeko eginkizunak.
- ***5.-etik 8.-era** bitarteko artikuluek definitzen dituzte alor bakoitzeko eginkizunak.
- ***5. etik 8. era** bitarteko artikuluek definitzen dituzte alor bakoitzeko eginkizunak.



- Kontratua gauzatzeko lekua: Lasarte-Oria, Atsobakar etorbideko **2.ean** kokatutako Zahar Egoitza.
- Musika Hizkuntzan sei maila izango dira, eta astean bi eskola-ordu emango dira maila guztietan, **6.ean** izan ezik: astean hiru izango dira eskola-orduak maila horretan.
- XIX. mendean ez zen halako buruhausterik izan; **XX.ean**, ordea, bai.